

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak 753.015 euro eman ditu 2013an uholdeen ondorioz azpiegituretan izan diren kalteak konpontzeko

26 tokiko erakundek jasoko dute laguntza, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen % 73 batez beste.

Martes, 24 de diciembre de 2013

Nafarroako Gobernuak, aurten, 753.015 euro eman ditu 2012ko urrian eta 2013ko lehen hiruhilekoan izandako eurite eta uholdeen ondorioz kaltetu ziren 29 tokiko erakundetako azpiegiturek konpontzeko. Diru-laguntzen bidez ordain daitezkeen gastu guztien % 73,4 da laguntza batez beste, eta egin diren obra guztiak Toki Azpiegituren Planean daude jasota presako edo larrialdiko obra gisa.

2014an, aipatutako kalte mota bera dela-eta egin behar diren obrak burutzeko 300.000 euro emango dira gutxi gorabehera.

Honako hauek dira diru-laguntzak jasoko dituztenak:

Anue: Etulain: 22.561 euro Doneztebe kaleko zatia zolatzeko, eta beste 5.976 euro tarte horretako sareetarako (lehen hiruhilabeteko euriteak); Areso: 2.123 euro Gereñonea biderako (ekaineko euriteengatikoko kaltea); Atetz: 8.300 euro hoditeria nagusia berritzeko --Aroztegi-- (ekaineko euriteak); Ageza: 6.733 euro Abadia kaleko horman izandako kalteak eta Carretera kaleko ezponda konpontzeko; Azagra: 20.340 euro kale nagusiko zati bat konpontzeko (ekaineko euriteak); Baztan: 1.884 euro Aritzakun eta Apaioa kaleetarako (urtarrileko uholde-uriteak); Bera: 19.268 euro Idoia pista konpontzeko eta beste 631 euro Malaustekoborda eta Soroaundi pistetan izandako kalteak konpontzeko; Berbintzana: 22.780 euro Erribera kaleko kalteak konpontzeko (ekaineko uholdeak); eta Burlata: 11.559 euro ekaineko uholdeek eragindako kalteetarako.

Horiez gain, honako herri hauek ere laguntzak jasoko dituzte: Cabredo: 4.097 euro uraren goi-hornidurako hodia konpontzeko (uholde-uriteak); Etxarren-Girgillao: 22.841 euro hilerrirako bideko obretarako (ekaineko euriteak); Etxalar: 26.931 euro Lurixtiederra, Orizki eta Urrizokieta auzoetako bideetarako (ekaineko euriteak); eta Ezkabarte: 32.944 euro Doneztebe kalean ezponda-irristatzea leheneratzeko --Eusa-- (urtarrileko euriteak).

Halaber, laguntzak jasoko dituzten herri hauetan: Goizueta: 11.032 euro Ataborro eta Sarran bideetan izandako kalteengatik; Uhartea: 58.858 euro Miravalles ezponda-irristatzea leheneratzeko (ekaineko euriteak); Irañeta: 33.341 euro San Migel kalerako, Arakil ibaiaren ibilguko eustormarako (lehen hiruhilabeteko euriteak); Xabier: 13.662 euro hilerriko ezponda egonkortzeko (2012ko urriko euriteak); Leitza: 1.973 euro

baserrietarako bideetarako (urtarrileko uholde-uriteak); Lesaka: 23.673 euro bideak konpontzeko (urtarrileko uholde-uriteak); eta Irunberri: 17.095 euro Camino de Sielva kalea zolatzeko (ekaineko uriteak).

Azkenik, onuradunak dira, baita ere, honako hauek: Izarbeibarko Mankomunitatea: 263.132 euro Nafarroako Ubidetiko hornidurarako, eta beste 4.112 euro Donejakue bidea kaleko hoditeriarako --Obanos- - (ekaineko uriteak); Marañón: 6.123 euro hornidura banatzeko sarea konpontzeko (ekaineko uriteak). Miranda Arga: 9.225 euro Miranda-Faltzes biderako (ekaineko uriteak); Obanos: 14.104 euro hilerrirako bidean konponketak egiteko (ekaineko uriteak); Oskotz: 2.224 euro uraren goi-hornidurako hodia konpontzeko (lehen hiruhilabeteko uholde-uriteak); Sunbilla: 5.129 euro Jauregi eta Txurripita baserrietarako bideetarako; Torralba del Río: 34.639 euro Torralba-Otiñano bidea konpontzeko; Urdazubi: 14.130 euro Tejeria biderako (ekaineko uriteak); eta Uztarroze: 22.203 euro hilerrirako bidea eta horma konpontzeko (2012ko urriko uriteak), beste 9.377 euro Irigoien bidean uraren goi-hornidurako hodia konpontzeko (ekaineko uriteak).